



Libreta horiko poemak

Pako Aristi

Liburuaren hitzaurrea ondo dago, itxura ona hartu diot.

Lehen poemari ez diot kasurik egin: “irakur ezazu poema bat aldiko, irakurle”. Ez horixe. Kolpe batez denak, behar den bezala..

1.- Jarrera existentzialista, gogoetsua, poeta heldu bat, bizitzari agur esaten bezala.

2.- Den-dena ezin da erosi, eta erosten den guztiak ez du merezi edukitzea. Materialismoari eta materialismoaren aurkako gogoetatzat jo daiteke.

3.- Hemen egilearen hiru bizio sakratuak goraiatzen dira: zigarroak erretzea, alkohola edatea eta poemak –esaterako– idaztea. Ez dago gaizki!

4.- Maitasuna bidaia bat da eta bidaiek irauten dute... irauten dutena. Horra zer dioskun poetak.

5.- Idazlearen lanik neketsuena ote da jendeari erantzunak ematea...? Ba ez nago ziur horretaz. Beharbada, jendeak ez du erantzunik nahi; beharbada, “jendeak” irakurtzen du erantzunei buruz pentsatu beharrik ez izateko. Diodana egia balitz, “alienatuta” egoteko irakurriko genuke.

6.- Poetak bere burua zahartuta sentitzen du eta zahartuta sentiarazten zaitu.

7.- Egileak burgeskumeak deitzen dizkie seme-alabak dituztenei. Orduan, Amazonian bizi diren indiarrak burgeskume batzuk dira, seme-alabak izaten baitituzte... Harrapa ezak!

8.- Poetak, joandako eta iraungitako amodioen nostalgian iraulkatzen jarraitzen du.

9.- Poema hau baieztapen batekin hasten da, baina nire kasuan, behintzat, baieztapen hori ez dabil: “Bizitza jendez inguratuta igarotzen sentitzen gara”. Horrez gain, poema honek baditu halako ukitu nartzisista batzuk, pittin bat arriskutsuak, nahiz eta bakardadearen gaia eta kalaka hori guztia ondo egon.

10.- Poema hau bereziki gustatu zait; aurkarien printzipioan edo teorian dago oinarrituta.

11.- Kasu honetan, egileak hartu duen tonuak ez nau konbentzitu. Badirudi adiskide guztiek huts egin diotela; berak, ordea, bere *purutasunean* akatsik gabe iraun omen du...

12.- Poema honek amesten genuenaren eta benetan daukagunaren arteko dezeptzioa islatzen du. Amaieran, dezeptzio hori “aberri” kontzepturantz proiektatzen du.

13.- Poetak benetako bizitzari (orainari) uko egiten diola adierazten du, eta jarraian, espero bezala inoiz suertatzen ez zaion etorkizun baten alde egiten du (etorkizun hori aurretiaz irudikatzen zuena ez bada ere).

14.- Ikuspegi gogaikarria du munduaz...

15.- Biluztasun-sentsazioa; kolore grisa eta ezkorra da nagusi; denboratik at geratzeari buruz ari da, hark berak fabrikatutako orduen barruan preso (... bere oroitzapenen barruan preso...?).

16.- Baserri-bizimodura, izadira, erroetara itzultzea planteatzen du. Azken finean, bizitza modernoaren absurduaz ari da...

17.- Irakurlearekiko konplizitatea; irribarretxo batekin uzten zaitu...

18.- Etorkizuna zor bilakatu duen gizartea ekarri dit gogora...

19.- Poema honetan distira benetan interesgarri bat dago; goi-arnasa du; oso ondo planteatuta dago.

20.- Poema hau mundiala da; gizon-emakumeen arteko izaera-ezberdintasuna ezin hobeto islatzen du.

21.- Hau ere bikaina da. “Bizitzako gauza garrantzitsuez” trufatu egiten da.

22.- Poeta berriz ere azaltzen zaigu bere ezkortasunean murgilduta eta inguratzen zaion ikuspegi gris horretan itota.

23.- Iraganeko amodio-kontuei buruz espresatzen dituen gauzetan, apur bat zakar azaltzen da zenbait momentutan. Honela dio: “Jadanik ezin dut gogoratu [...] lanbro-bidera ekarri nituen aluak”. Egia esateko, ez dakit nik hori beste hizkuntzaren batera itzultzera ausartuko ote zen...

24.- Egileak arazo bat dauka: sexu-bizitza aktiboarekin jarraitu ala sexu-bizitza desaktibatu eta kito? Badirudi zalantzan dagoela, baina azkenean argi dauka: lehen aukera irabazle.

25.- Sexua eta rock & roll.

26.- On Juan baten gisa azaltzen zaigu bere poemetan, nahiz eta jarrera melankoliko batez eta maitasun instituzionalizatuaren aurkako nerabe-jarrera batez mozarrotu... Kaskarin samarra ez ote da...?

27.- “Aurrerapena” esaten zaion kontsumismoaren aurrean kritiko agertzen da.

28.- Berriz ere On Juan, bere gainbeheran, tristekiro eta jakintsuki gogoeta egiten...

29.- Hemen ez dut garbi ikusi zer esan nahi zuen, bizitzari buruzko ikuspegi “retro” bat erakusten jarraitzen badu ere, finean...

30.- Inkonformista hutsa...

31.- Nostalgia gehiago; “denborak eraman zituen neska polit” gehiago...

32.- Poema honek merezi ditu bi irakurketa...

33.- Hemen, egileak, Euskal Herriko mundu burges/iraultzailean kontraesan asko – gehiegi– ikusten omen ditu.

34.- Egilea haize kontra dabil, oro har; eta poema honetan hori berriz ere jartzen da agerian. Dena den, kostaldean bizi direnek errazagoa daukate kostaldera egun-pasa joatea, Gaztela-Mantxako paisaiekin flipatzera joatea baino...

35.- Poema honetan Pako Aristi oso handinahi agertzen da, baina zentzu jator, poetiko eta literario batean. Oso olerki txukuna da.

36.- Poetak oraina aldarrikatzen du, bere estrategia ez-konformistaren estrategia gisa.

37.- Ukitu mistikoa du. Honela hasten da: “Bere bizitza aldatu nahi duenarentzat idatzi nahi nuke liburu hau.” Une batez, zera pentsatzen duzu: “Arraioa! Bibliaren II. atala”.

38.- Egileak bere espiritu antimaterialista berriz erakusten du, gure gizartearen gehiegizko materialismoa salatzeaz batera.

39.- Poema hau oso dibertigarria eta oso umoretsua da.

40.- Sexuaren, sexualitatearen indarra... Sexuak daukan esanahia, presente dagoenean / presente ez dagoenean...

41.- Poema-kontuetan jakintsuago bilakatu dela dirudi...

42.- Pobrea izatearen abantailez hitz egiten digu poetak hemen, eta burges-iraultzaileei dien nazkaz.

43.- Poema honetan musu-irakasle bilakatzen da egilea...

44.- Berriz ere gizarte kontsumistaren aurka egiten du. Baina, azken finean, inguruan dituen pertsonak ez al ditu apur bat karikaturizatzen, horien joera kontsumistak handituz bere burua goraiatu ahal izateko...?

45.- Kontu-korranteetan dirua pilatzen dutenez kexu azaltzen da poeta, diru hori gizartearentzat eta eurentzat aprobetxatu ordez. Gizarte modernoa ezaugarritzen duen “Gilito Osaba” espirituaren aurka egiten du berriz.

46.- Hau poema liluragarria da. Poetak den-dena jartzen du zalantzan, baita hitza, idaztearen arrazoia ere. Pako Aristik etengabe jartzen du zalantzan barrutik zein kanpotik inguratzen zaion guztia.

47.- Poema honetan etenaldi bat egiten dut. Asmo on bat egon daiteke, baina baliteke gehiegizko zerbait ere egotea, ez dakit ba, halako egolatria-zantzu bat...

48.- Poetak dio: "... Hau ulertzen ez duen idazleak inoiz ez du ikusiko hamasei urteko neska bat parkean bere liburua irakurtzen". Eta niri, zera pasatu zait burutik: "Hamasei urteko neska bankutik jaiki eta, oharkabean –pentsatu zuen poetak– liburua –poetak berak idatzitako bat– bankuan ahaztuta utzi zuen. Korrika hurbildu zitzaion ohartarazteko, eta bankura iritsi zenean eta liburua hartu zuenean urrunduz zihoan neskari eramateko, ikaraturik ohartu zen zirrimarraz eta arrunckeriaz josita zegoela".

49.- Etsaiei buruzko poema hau jeniala da; poema osoa sarkasmo handi bat da.

50.- Poetak ermitauaren bizitza faltan botatzen du: madarikazio baten gisa jazartzen dion idealismo bat.

51.- Hemen poeta bere buruaz seguruegi agertzen da. Batzuetan, haxix-erretzailea ekartzen dit gogora, neurri batean... Ondo dago bere zorionaz eta bere askatasunaz gozatzea (hain zorionsua eta hain askea bada...), baina besteei ere zertxobait utz liezaieke, ezta? Gainera, Pako, "Zer egingo genuke haiek gabe?". Ez al duzu kartel hori irakurri...? Agian zure lagunek bai, irakurri egin dute... On Juan berriro, bere amodio-kontuez harrotzen... Azpeitiko etxekoandreek erratza eskuan egingo diote harrera egunen batean...

52.- Nostalgia. Nostalgia. Nostalgia. Nostalgia.

53.- Poetak honela dio: "Materiarik ezaren erreinuan galduta gabiltza bizitza osoan ondasun materialak pilatzen eman ondoren". Bueno, arrazoirik ez zaio falta, nahiz eta, oro har, jenderik gehienak, ondasun materialak pilatu baino gehiago, egin ohi duena aurrera ateratzen saiatzea izaten den, eurak euren familiekin. Eta grina eta banitate "materialak" badauden bezala, grina eta banitate "ez-materialak" ere egon badaude. Esaterako, BMW bat izatea gauza materialekiko grinak eta banitateak piztutako desio bat da; liburu bat idaztea eta geure izen-abizenekin izenpetzea, ordea, gauza ez-materialekiko grinak eta banitateak piztutako beste desio bat da. Ergo... jakintsua izateko, Tibetera gutxienez joan beharra dago bizitzera... Eta hori ere, txinatarren baimenarekin...

54.- Aristi minduta agertzen da, txirotasunaren aurrean eta gosearen aurrean hotzik eta itsu azaltzen direnez. Zentzu horretan, eta beste zentzu batzuetan, Pako Aristi gizon konprometitua da, eta haren sumina benetakoa da.

55.- Oraingoan, poetak gorputzak eta haragizko maitasunak ditu gogoan. Izan ditu ugari bere bizitzan, antza, eta haren arima maitasun horietan berritu egiten dela dirudi. Eta gehitzen du: "Agian haragiaren hizkuntza hurrengo gorputzarena delako, gorputz berrien gutziarena". Haragizko maitasunen iturria lehor daitekeelako ideia ez du jasaten... (nork jasaten du ordea...?).

56.- Poetak poema honetan bere jakin-mina proiektatzen du, eta bere pentsamendua "underground" espirituaren esku uzten du...

57.- Poetak kontsumo-gizartea salatzen du beste behin. “Erosteke gure ahalmenetik bizi den lantegi erraldoia da gizartea” esaldiak ezin hobeto laburbiltzen du bere salaketa.

58.- Hemen, poetak salaketa gogorra egiten du, siglak eta guzti .

59.- Poema hau nahiko bitxia da. Oroimina islatzen du... baina oroimen historiko bat da, halako nostalgia bat da... ehiztariak ginenekoa edo... Badirudi nekazariak mesprezatzen dituela: “Haiek pobreak dira eta gu aberatsak”, dio. Bueno, nekazari-herri asko bizi (izan) dira miseria gorrian... Agian, ehiztari-herriaren itxurazko askatasunak erakartzen du egilea. Ez nago ziur, baina, esango nuke zera, Aristi kausa handiekin engaiatu egiten dela, bai, baina “kausa txikiek” (familia-erantzukizunek, esaterako) ikara ematen diotela, e.a. Ez dut esaten hori hala ez dela, baina, aldi berean jarrera hori ez al da halako “zama” bat...?

60.- Oso ederra poema, emakumeen edertasunak barru-barruraino sastakatuta sentitzen da egilea.

61.- Poema sakona, oso. Kritiko azaltzen da, eta ez zaio arrazoirik falta. Poetak X izpiko begirada daukala erakusten du. Eta, beharbada, apur bat urrundurik bizi dela.

62.- Poetaren begirada kritikoak bere goi-unea erdiesten du. Baina gehiegizkoa gertatzen da, “kritikoegi” azalduko balitz bezala... Garraztasuna, mingostasuna.... “besteek dena egiten dute gaizki”, “besteak putza bat dira”... Ia, eta zuk...?

63.- Poetak ez du maitasun-konpromisorik nahi, berriz ere hanka egiten du (ez du, antza, bere lagunak bezala “bukatu” nahi)...

64.- Poetaren maitasun idealizatua, beldur-sentsazio bat (nahigabeko ustekabe bat) uzten badu ere...

65.- Mikatza, mikatza... Poetak ez daki ezer hurrei buruz!

66.- Lehengo denborak goraiatu eta egungoak ukatu egiten dituzten pertsona adintsu horietako bat dirudi. Telebistak omen du gaitz guztien errua. Baina nik ere ezagutu nuen telebistarik gabeko belaunaldi hura (poeta eta biok adin berekoak baikara), eta zentzu askotatik begiratuta, belaunaldi benetan mixerable eta ziztrina izan zen gurea, eta belaunaldi hartako asko eta asko horregatik jaurti ziren, esaterako, drogaren atzaparretara (adibide bat jartzeagatik diot hori, hamaika adibide jar nitzake-eta). Egia esateko, harrigarria da poetak errealitatea distortsionatzeko erakusten duen ahalmena.

67.- Idem de Idem. Une honetan, apur bat estralurtarra begitantzen zait egilea.

68.- Poema oso txukuna da hau, bere taxuera intimista horrekin.

69.- Atsegina da, oroiminari lotzen zaion poema hau.

70.- Poetak gure gizarte zikoitza salatzen du eta modu dotore batez egiten du.

71.- Artista-potretaren eta artista-bizitzaren aldeko amorratua dugu poeta.

72.- “Nik ere aurkitu nuen nire bizitzako amodioa, nahiko azkar, gainera, baina ez nuen bizitza osoa harekin igaro nahi izan”. Esaldi hau, serio demonio botata, irriño bat jartzen du irakurlearen begitaratean. Bukaera fina du.

73.- Hemen poeta azaltzen da On Juan zahar okitu baten gisa; zakilean zenbat mueska dituen eginak esatea baino ez zaio falta. Poetari esan behar zaio: emakumiak ez dituk “katalitika” hutsak, motel; ez zekiat ba benetan ba ote dakian maitasunaz hik uste bezainbeste”.

74.- Poetak “bizitzako egiak” zeintzuk diren kontatu nahi ditu poema honen hasieran. Bukaeran, une batez badirudi den-dena (eta berari dagokion guzti-guztia) zalantzan jartzen duela...

75.- Poema honetan badago aldi batez agerian jartzen den mezu ia onartezin bat, jarraian tintagaia urarekin bezala desegin egiten dena-edo, poetaren barkagarri...

76.- Poeta zahar-etxe batean poema hau irakurtzen sartuko balitz, uste dut hozkaka eta marraskaka hartuko luketela... *hexurretan* utzi arte.

77.- Poema honetan poeta den “rasta-hari” petoa berriz ere jartzen da agerian. Eta jarraitzen du gurasoez eta haurrez tutik ere ulertu gabe (mutilzaharraren garratzasuna ote...?).

78.- Poema polita da hau. Hunkitu egiten zaitu.

79.- Oso txukuna, bukaerako poematxoa. Agur esateko oso era dotorea.